

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekin harremana mantendu eta azkenik diru sarrerak lortu ahal izango ditu gure empresak

Beharrezko baliabide horiek kategoria desberdinetan sailkatzen dira, eta hurrengo hauek izango lirateke:

Baliabide fisikoen atalean bizikleta elektrikoa eta bere karroa sailkatuko genituzke. Horiek erosketen banaketarako beharrezkoak dira, gure banaketa guztiak bizikletaz egitea baita gure helburua. 2 ordenagailu izango ditugu, bat dietistak erabili dezan bezeroen jarraipena eta menuak sortzeko eta gordetzeko eta bestea bezero guztien erosketak gorde eta kontuak eramateko. Jarraitzeko gure bezeroek erosketa egin ahal izateko eta dietistarekin kontaktuan mantentzeko mugikor bana eduki beharko genituzke. Horietaz gain, hasieran ere kartulinazko 20 txartel egin beharko ditugu eta hasiera denez egunkari desberdinetan Propagandarekin jarraituz, jende helduari emateko gure zerbitzuarekin eta produktu desberdinez osatutako aldizkariak egingo ditugu.

Baliabide intelektualei dagokienez, ez dugu programa informatikorik erosteko beharrik sentitzen, horren ordez Drivek eskaintzen dituen kalkulo-orriak erabiliko ditugulako enpresari hasiera emateko.

Giza baliabideak atala kontuan izanik, hasieran lau sozio bakarrik ibiliko gara lanean. Enpresa handituz gero, eta langile gehiago behar izanez gero, jende gehigo kontratatzea pentsatuko genuke, baina horretarako lehendabizi enpresak fakturazioa handitu behar du.

Bukatzeko, finantza baliabideak ditugu, baina guk hasiera baten ez dugu bankuari inolako prestamori eskatzeko asmorik.